



hitzartzen
HIZKUNTZA-PORTAERAK ALDATZEKO SAIOAK

HIZKUNTZA PORTAERETAN ERAGITEKO SAIOEN KATALOGOA



hitza hartu
+ itzartu
hitzartu

hitzartzen



sarrera

Emun 1997an sortu zen lan munduan euskararen erabilera normalizatzeko helburuarekin. Zeregin horrek berarekin zekarren kultura eta ohitura aldaketa bat eta, euskara planen baitan, pertsonen motibazioan eta portaera aldaketetan zerk eta nola eragiten zuen ikertzen hasi ginen. Urte hauetan ezagutza handia metatu eta metodologia eraginkorra izatea lortu dugu, erreferente garrantzitsu bihurtzeraino.

2008an TELP (Taller d'Espai Lingüístic Personal) tailerren berri izan genuen eta haien sortzaileekin, Ferran Suay eta Gemma Sanginesekin harremanetan jarrita, Euskal Herriko egoeretara egokitu eta tailerrak eskaintzen hasi ginen.

Berrikuntzan eta Hobekuntzan egin dugun apustu estrategikoak metodologiaren garapenean aurrera egitea eta lan esparruak eta zerbitzuak zabaltzea ekarri digu. Antolatuta daukagun **zaintza sistemaren** bidez gizartearen eta pertsonen beharrak identifikatzen ditugu eta urtero barne mailan hainbat ikerketa proiektu bideratzen ditugu behar horiei erantzuteko. Dinamika horrek eta Emunek **ezagutzaren kudeaketan** eta teknikarien **garapenean** egiten duen inbertsioak zerbitzuak hobetzea eta dibertsifikatzea ahalbidetu du.

Eragin arloak hainbat badira ere, denek konpartitzen dituzte ezaugarri bertsuak. Emunen sinetsita gaude ikasteko era eraginkorrena **eginez ikastea** dela eta horrela antolatzen ditugu saioak: hartzailen beharretara moldatzen ditugu, parte hartzaileek egunerokoan bizi dituzten egoera errealak oinarri hartuta. Saio hauetan parte hartzen dutenek, edukiak jasotzeaz gain, hausnarketa bidez barneratu egingo dituzte. Beraz, saio hauek **hartu** eta **emateko guneak izango dira**.



ezaugarriak

BERARIAZKOAK: hartzaileari egokitutako saioak, edukietan zein erritmoan.

PRAKTIKOAK: teoria eta praktika uztartuta, eginez ikasi.

ERABILGARRIAK: egunerokoan aplikatzeko erantzunak.

ERREALAK: partaideen bizipenetatik abiatuta.

PARTE HARTZAILEAK: guztion artean eraikiz.

ERAGINKORRAK: berehalako emaitzak, jarreraren eta portaeren arteko hurbilketa.



balio erantsia

Urteetako eskarmentua.

Trebatzaile sortzaileak eta kualifikatuak.

Talde oso bat atzean: berrikuntzako talde teknikoa.


Ezagutzaren kudeaketa.

Estandarizazioa eta hobekuntza.

hitzartzen saioak

1. EROSO NONAHI ETA NOIZNAHI (TELP tailerrak)

Euskaraz bizi nahi duenarentzat baliabideak eskuratzeko tailerra. Eguneroko zailtasunei / egoera zailei aurre egiteko estrategiak eskuratuko ditugu. Euskaraz eroso nonahi eta noiznahi aritzen ikasiko dugu.

 **HARTZAILEAK** - euskaraz bizitzeko hautua egin duten pertsonak eta eguneroko egoeren aurrean eroso sentitzeko baliabideetan sakondu nahi dutenak



IRAUPENA - 10 ordu



ONURAK

- Erosotasuna
- Ahalduntzea
- Asertibitatea

2. AKTIBAZIO TAILERRAK

Euskaraz bizitzeko hautua egin dutenek hizkuntza ohitura aldaketa kolektiboa nola emango den ulertu eta aldaketarako ahalduntzeko tailerra. Eguneroko zailtasunei / egoera zailei aurre egiteko estrategiak eskuratu eta portaera estiloak landuko ditugu.



HARTZAILEAK - egitasmo kolektiboetako parte hartzaileak



IRAUPENA - 4,5 ordu



ONURAK

- Taldearen babeseta
- Sendotasuna
- Erosotasuna

3. TALDEAN ERAGITEN

Ingurune hurbilean eragiteko hizkuntza lidergoa lantzeko tailerra. Hizkuntza ohiturak nola eraikitzen diren ulertu, aldaketarako gakoak ezagutu eta besteen bidelagun izateko moduak praktikatuko ditugu.



HARTZAILEAK - euskaraz eroso bizi diren eta inguruan eragin nahi dutenak



IRAUPENA - 10 ordu



ONURAK

- Ahalduntzea
- Lidergoa
- Enpatia landua

hitzartzen saioak

4. ESATETIK EGITERA

Euskaldun sentitzetik euskaraz bizitzera, esatetik egitera pasatzen laguntzeko tailerra. Euskararen erabileran eragiten duten faktoreei buruz taldean hausnartu eta hizkuntzen elkarbizitza ulertuko dugu. Aurrera begirako pausoak elkarrekin adostuko ditugu.



HARTZAILEAK - euskararen erabilerari buruz hausnartu nahi duen taldea



IRAUPENA - 10 ordu



ONURAK

- Erabilerarako abiapuntua
- Helburu bateratuak
- Taldetasuna

5. HIZKUNTZA PRAKTIKA EKOLOGIKOAK (Ekogunearekin batera sortutako tailerra)

Haur eta gazteek euskararen aldeko hautu sendoa egin dezaten izan beharreko elkarrizketak nola bideratu, zer esan eta nola esan ikasteko tailerra. Hizkuntza nola barneratzen den ulertu eta sozializazio prozesuak aztertuko ditugu. Begirada haurren eta gazteen ingurune hurbilean jarri eta adin tarte bakoitzerako hizkuntza praktika ekologikoak landuko ditugu.



HARTZAILEAK - hurrekin eta gazteekin harremana dutenak (euskaldun zein erdaldun)



IRAUPENA - 9 ordu



ONURAK

- Ekologiaren ikuspegia
- Adinkako baliabideak
- Elkarrizketetan trebatzea

6. SOZIOLINGUISTIKAZ GAZTEEKIN

Gazteekin, euskararen erabileran eragiteko, soziolinguistikako oinarriko ezagutzez hausnartzeko tailerra. Euskara eta euskaldunongan eragiten duten aldagaiak ulertu, lagunartean hizkuntza bat edo bestea aukeratzeak sortzen dituen sentipen eta kezkez hitz eginez.



HARTZAILEAK - nerabeak eta gazteak



IRAUPENA - nahieran



ONURAK

- Aurreiritzien azterketa
- Euskara mundu eleanitzean
- Euskararen aldeko praktikak

hitzartzen saioak

7. BEROKETA SAIOAK (Sentsibilizazio saioak)

Soziolinguistikara hurbiltzeko saioak. Hizkuntzen, hiztunen eta hizkuntza komunitateen berezitasunez, aurreiritziez eta bizirauteko aukerez hitz egiteko gunea. Hitzunon aukera eta zailtasun egoerak eta euskara mailaren baitako portaera posibleak landuko ditugu.



HARTZAILEAK - euskaldun zein erdaldunak



IRAUPENA - nahieran



ONURAK

- Gogoeta partekatzea
- Elkar ulertzea
- Kontzientziazioa

8. MOTIBAZIO PROZESUAREN NONDIK NORAKOAK

Motibazioa zer den ulertu eta motibazio plan integrala antolatzeko tailerra. Motibazio ekintzak diseinatzeko ikasi: sortzeko teknikak landuz ekintzak definitu, antolatu eta ebaluatzeko ezagutza lortuko dugu. Motibazio ekintzetarako ideiak sortzeko oinarritzko sormen teknikak eskainiko ditugu.



HARTZAILEAK - normalizazio teknikariak



IRAUPENA - nahieran



ONURAK

- Motibazioa prozesua ulertzea
- Sormen teknikak
- Motibaziorako plangintza diseinatzea

9. BERARIAZKO SAIO ETA HITZALDIAK

Beharren arabera, eskariaren araberako saio berezituak sortzeko aukera eskaintzen dugu. Baita hitzaldiak ere, saio bakoitzaren inguruan, besteak beste:

- Non jarri behar dugu arreta euskara gehiago egiteko?
- Nola egin euskara gehiago euskara ikasten ari garenean?
- Lan munduan euskaraz (Lanbide Heziketako ikasleentzat)

emunⁱ

EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

Arrasate - Andoain - Berriozar - Bilbo
www.hitzartzen.eus